



Ekonomi Itunaren Hasiera

1876. urtean, azken Karlistadaren ondoren, Foruak deuseztatu egin zituzten, baina ez erabat. 1876ko uztailaren 21eko Legearen bidez, Gobernuko Presidente Antonio Canovas del Castillok hurrengo erabaki zuen: euskal probintziek Ogasunari dirua ordaindu behar ziotela eta gizonek kintetan parte hartu behar zutela. Hurrengo urtean, Diputazioak ukatu ziren agindutako betebeharrak betetzera, eta, orduan, Canovasek Foru Aldundien ordezkariak Probintzietako Diputazioak –Espainiako gainerako probintzietakoak bezalakoak– ezarri zituen. Canovasek arazo berri bati egin behar zion aurre: Probintziei beren zergak ordainarazi behar zizkien, baina horretarako ez zegoen beharrezkoa zen administrazio-eta estatistika-egiturarik. Behin-behineko irtenbide gisa, Probintzietako Diputazioekin adostasun jarri zen; izan ere, Diputazioetan elementu tolerantak baitziren nagusi, hau da, uztailaren 21eko Legearekin laguntzeko prest zegoen jendea. Hitzarmen horren arabera, Diputazioek Ogasun Ministerioak bere kabuz bil zezakeen besteko kopurua ordaindu behar zuten. Diputazioek, beraz, akordioaren barruan zeuden uneko zerga nagusiak biltzeko ardura hartu zuten. Hitzarmenaren iraunaldia zortzi urtekoa izango zen. Hitzarmen hori da, hain zuzen ere, Ekonomi Ituna, berori onartu zuen 1878ko otsailaren 28ko Dekretuaren sarrerak Probintziek nazioaren "Ekonomi Itunean" parte hartu behar zutela aipatzen zuelako.

Diputazioek kopuru horiek ordaindu ahal izateko, adostutako zergak biltzeko aukera eman behar zitzaizkien; zerga horiekin batera orain baimendutako zenbait arbitrio erantsi behar ziren, gerra aurretik ere biltzen zirenak. Hasieran nahasmen handia bazen ere, Diputazioek beren status bereziari eutsi zioten, eta sistema berria bertako baldintza aldakorretara moldatzeko gauza zela erakutsi zuten. Izan ere, Bizkaiak, bigarren Karlistadatik aurrera, hazkunde ekonomiko eta demografiko handia ezagutu zuen, Nerbioiko itsasadarraren ertzetan batik bat. Urte gutxi batzuen buruan, gerra aurrean hasitako meatzeak ustiatzeko prozesuak ere gora egin zuen nabarmen.

Meatze ustiatzeko beharrak geroz eta handiagoak ziren eta horrek azpiegitura berriak sortzea eragin zuen: trenbideak, portua hobetzea, etab. Diputazioak diruz lagundu zuten trenbideak sortzen, eta Gerra aurretik bat eraiki zuen: Trianoko Meatze Trenbidea. Hain zuzen ere, tren hori izan zen garraio bide nagusia garai hartako meatzerik aberatsenetan. Trenbide hori garai hartan Espainian zegoen jabetza publikoko bakarra zen, eta harekin bildutako diru sarrerei esker –eta batzuetan handiak izaten ziren– Diputazioak aukera izan zuten adostutako zergak ez biltzeko. Ahaztu ere, ezin dugu ahaztu XIX. mendeko azken



Concierto Económico

hamarkadetan eta XX.eko lehenengoetan, burdin mearen ustiapena bere gorenera iritsi zela, eta Ingalaterra, Belgika edo Alemaniarako esportazioak ere nabarmen igo zirela. Gainera, tokiko siderurgiek (Bilboko Labe Garaiek, La Iberia eta La Vizcayak) bat egin zuten 1901ean eta Bizkaiko Labe Garaiak sortu zuten. Horrela, burdin mineralaren eraldaketa Bizkaian bertan egiten zen.